

Kultura

Ekitaldiz betetako asteburua prest dute San Fausto jaietarako, Durangon >4



Guneen eredua indartu gura du azokak

‘Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka’ beharrean ‘Durangoko Azoka’ deitzen da orain. Itziar Okarizek edizio honetarako sortutako kartelaren aurkezpenean eman dute izen aldaketaren berri >15



Argazkipress.

McDonald's jatetxeak bertan behera utzi du Iurretako proiektua > 6

McDonald's janari lasterreko konpainiak bertan behera utzi du Iurretan jatetxe bat zabaltzeko egitasmoa. Iurretako Udalak joan zen maiatzean eman zion obra baimena enpresari, eta hiru hilabete epea zuten obrak hasteko. Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak baieztatu duenez, enpresak atzera egin du proiektuarekin. McAuto 24 orduko janari zerbitzua eta jatetxea eraikitzeko asmoa zuen Ertzilla industriagunean.



Nere
JATETXEA

San Agustinalde, 4
DURANGO
Tel.: 946 203 910

Eguneko menua.
Eguerdietan: entsaladak, errazioak eta plater konbinatuak.
Ostegunetik igandera **karta berezia** gauero.



Durangaldea > 2

Durangaldeko hiru lagun Segi eta Herriko Tabenen auzian

Durango > 3

Salesen komentua okupatu du herritar talde batek

Garai > 6

Txakurrak batzearren kobratu egingo du udalak

Abadiño > 7

Bankuek alegazioak aurkeztuko dizkiote MZko likidazio planari

Herririk herri

> DURANGALDEA

Madriren epaituak izateko atarian

Segi eta Herriko Tabernen epaiketak hasiko dira, eta Durangaldeko hiru lagun daude auzipetuta

> MARKEL ONAINDIA

Datorren astean egoera politikoan zeresana emango duten epaiketa bi hasiko dira Madriren: 26/11 eta 35/02 auziak, Segi eta Herriko Tabernen auziak, hurrenez hurren. Guztira 76 herritar epaituko dituzte, tartean Eñaut Aiartzaguena (24 urte, Iurreta), Ibai Esteibarlanda (28 urte, Elorrio) eta Enrike Alaña (46 urte, Durango).

Astelehenean hasiko dira Aiartzaguena eta Esteibarlanda epaitzen. 2009ko azaroaren 24an atxilotu zituzten, beste 30 bat gaztegaz batera. Bost egun eman zituen inkomunikatuta Esteibarlandak: “Egun horietan torturatu, toperaino estutu, txikitu, eta hortik audientziara eta kartzelara eroan ninduten”. Aiartzaguenak akorduan dauka kartzelako denbora: “Hasieran kolpe handia izan zen, hilabete gogorak pasa genituen”. Hamabost eta hemeretzi hilabetera askatu zituzten, 50.000 euroko fiantzapean.

Eta orain, epaiketa dator. Urduri daude, baina hasteko gogoz. “Gero eta beranduago hasita, bizitza gehiago baldintzatzen digu”, esan du elorriarrak. Hemendik eta abendura bitartean, hainbat egunetan joan beharko dute Madrilera, eta bizi egoera horrek baldintzatu egingo ditu, iurretarraren ustez: “Zer edo zelan lanean jarraitu guran zauden, eragileetan, herrian. Baina, aldi berean, mamu bat daukazu arrastaka eroaten zaituena”.

Segi gazte erakundeko kide izatea egozten die epaileak, eta

horregatik sei urteko kartzela zigorra jaso dezakete. Espainiako justiziak Segi erakunde terrorista zela ebatzi zuen. Esteibarlanda: “Guk ez dugu esango ez genuela ezer egin. Atxilotu eta kartzelaratu bagaituzte zerbait egin dugulako da. Eta, gainera, harro. Egin dugu lana herrian, unibertsitatean, Euskal Herrian... Zilegi da bakoitzak bere ideiak eta jarduna defendatzea”. Aiartzaguena: “Herrian ezagunak gara, gazte mugimenduan eta eragileetan lan egin dugu. Guk beharrezkoa ikusten dugun lan bat egin dugu, Euskal Herriaren, eta bestelako jendarte eredu baten alde”.

Urriaren 20an urte bi beteko dira ETak borroka armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuenetik. Geroztik sarritan esan izan da aro berri bat bizi dela Euskal Herrian, baina ez dirudi Espainiak estrategia aldatu duenik. “Azken urteetan Ezker Abertzaleak konponbiderako pauso batzuk egin ditu, eta bigarren urteurren horretan Madriren egongo gara. Epaitegi arrotz baten aurrean gure ideia politikoak defendatzen. Lehen ez zeukan zentzurik, eta orain gutxiago”, esan du Aiartzaguenak. Sententziari begira, ez daude baikor. Herri-presioa ikusten dute aukera bakar lez, eta herritarren konpromisoa batu gura dute. Bestalde, epaiketako prozesuan egingo duten lana konponbiderako pauso bat emateko baliatu gura dute. Esteibarlandak uste du ez dela azken “kolpea” izango: “Azken



Aiartzaguena eta Esteibarlanda, Elorrioren.



Alaña, Otxandion.

urteetan bakea lortu behar dela diotenei deia egin nahi diet, erasoiei batera erantzuteko”.

Oinarri juridikorik ez

Eguenean hasiko da Alañaren epaiketa, atxilotu eta 11 urtera, aske geratu eta 10 urtera. Operazioa gogora dakar: “Garzon eta Aznarrek lasterketa bat zeramaten ea Herri Batasuna, EH eta Batasuna nork legez kanpo utzi. Garzonek erabaki zuen Herriko Tabernak ez dakit zeren finantzabide zirela, eta horren kontura egin zuen gure kontrako operazioa”. Hasieran, iruzur fiskala, kontabilitate bikoitza

eta antzekoak egozten zizkieten, baita talde armatuko kide izatea ere. Orain, talde armatuari laguntzea leporatzen diete, baina gainerakoa desagertu egin da. “Akusazioak poliziak egindako txostenetan oinarritzen dira, eta hori hartzen dute frogatzat. Orain poliziak izango dira espezialista inpartzialak. Hori Europa osoan ez dago onartuta”.

Epaiaketak ez dauka oinarri juridikorik bere ustez. Akusazio oso “kuriosoak” direla dio: “Nire kasuan, adibidez, Herri Batasunarentzat abokatu lez kasu batzuk erroatea audientzian bertan”. Zortzi urteko kartzela

zigorra jaso ahal du. Arduratuta dago. Otsailera arteko epaiketa datak eman dizkiete, baina luzatu egin daiteke. “Bidaia, lan arazoak, familiagaz hartuemanak urrundik edukitzea, kostu ekonomiko handia... gogorra izango da”.

Alañaren ustez, epaiketaz partaidetza politikorako esku-bidea urratzen da, eta egoera apartekoa da: “Normalizazioaren kontra doa; baita azken operazioa [Herrira] ere. Eskubide urraketek jarraitzen dute. Euskal Herria beste koordinada batzuetan dago. Hori irudikatu behar zaio estatuari”.

Epaiaketak kritikatzeko ekimenak egin zituzten domekan

Epaiaketa bietan auzipetuta daudenek *Libre* izeneko dinamika zabaldu dute euren egoeraz informatu, eta herritarrek kontzientziatu guran. Nazioartean ere badabilta hartuemanak lantzen. Babesa jasotzen hasi dira, eta joan zen domekan, ekimen bi egin ziren Elorrioren, Errebonbilo Eguna zela aprobetxatuta. Ernai gazte erakundeko kideek deituta, plazan amaitu zen manifestazioa egin zuten 80 bat gaztek. Erraldoi

bati Mariano Raxoiren itxura eman, eta bere inguruan *herri harresia* eraiki zuten. Ekimen horren bidez, epaiketen aurka borroka egingo dutela adierazi gura izan zuten. Gainera, gatazkaren konponbidearen alde lanean jarraituko dutela azaldu dute prentsa ohar bidez.

Bestalde, hainbat herritar eta errebonbilok txapel laranjak ipini zituzten, *Libre* dinamikari atxikimendua adierazteko. Aldarri horrekin kamise-

tak jantzi zituzten, eta plazan pankarta handia eskegi zuten.

Laguntza eske

Segiren kontrako epaiaketak 130.000 euroko kostua izango duela aurreikusi dute, eta Herriko Tabernenen auziak 700.000 eurokoa. Defentsa, garrarioak, egonaldiak... Hainbat gastu dauzkate. Gainera, epaiketak luzatzen badira, handitu egingo da kopuru hori. Auzipetuek laguntza eskaera egin dute. Adierazi dutenaren arabera, *libre.epaiketarikez.org* webgunean egin ahal dira ekarpenak.



Elorrioren joan zen domekan egindako agerraldia.

EAJ, Bildu eta Aralar, Herriraren kontrako operazioaren aurka

Joan zen asteko operazioa atzerapausoa dela diote

> M.O.

Durangoko EAJk, Bilduk eta Aralarrek Herrira mugimenduaren kontrako operazioa kritikatu dute. Adierazpen bateratua sinatu dute, eta operazioa konponbide prozesuan atzerapausoa dela diote: “Oinarritzko eskubideen etengabeko zapalaketak ez dira inolaz ere lagungarri gure herriak behar duen soluzio bilaketarako”. Euren ustez, Espainiako Gobernua *dena ETA da* tesia aktibatzen dabil, eta estrategia politiko eta judicial hori txarretsi dute, “ETAren ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako”. Gogoratu dute urte bi pasa direla ETAk jardun armatua behin-betiko eten zuenetik.

Preso eta iheslarien eskubideen defentsa ez duela Herrirak

bakarrrik egin ohartarazi dute hiru alderdiek: “Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarritzko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte”. Durangoz gainera, Otxandioko udalbatzak ere onartu du adierazpen bera, Bilduren botoekin.

Mobilizazioak

Bestalde, joan zen asteburuan hainbat protesta ekitaldi egon ziren. Durangon, kontzentrazioak eta manifestazioak egin zituzten ia 300 lagunek. Elorrión, giza katean batu, eta argazkia atera zuten 430 pertsonak. Abadiñon, 130 lagunek kalejira egin zuten Traña-Matienan. Berri-zen, Iurretan eta Zaldibarren ere kontzentrazioak egin ziren.



Diru-laguntza, ezindu psikikoei bideratuta

Ekarpen horregaz, elkarteei lagundu gura diete

> M.O.

Durungaldeko Amankomunazgoak diruz lagunduko die ezintasun psikikoa daukaten pertsonekin lan egiten duten elkarteei. 15.000 euro erabiliko ditu horretarako. Oskar Zarraitia Amankomunazgoko presidenteak esan du ekarpen

horregaz arlo horretako elkarteei lagundu gura dietela, baita ezinduen familiei ere. Urriaren 21era arte egongo da laguntza eskatzeko aukera.

Bestalde, kirol arloan ere laguntzak iragarri dituzte: atletismo pistarako, belodromorako eta trinketerako.

> DURANGO



Galtzareta kalean dago Salesen komentua zen eraikina.

Salesen komentua okupatu du herritar talde batek

Esan dute ez diotela Gaztetxe izaera emango, eta bizitzeko erabili nahi dutela

> MARKEL ONAINDIA

Galtzareta kalean urtetan hutsik egon den Salesen komentua okupatu dute hainbat lagunek. Duela astebete inguru sartu ziren bertara. Ez dela Gaztetxea izango azaldu dute; bizitzeko eta proiektuak garatzeko okupatu dutela. Etxea eraikuntza-entresa baten jabegokoa da, eta horregaz hartuemanetan ipini dira. Auzokoak ere informatu dituzte oharren bidez, “ahalik eta garrantasun handienarekin jokatu-ta”. Ertzaintza eta udaltzaingoa joan dira bertara, baina orain arte okupazioari eutsi diote.

Gune berria zertarako gura duten azaldu dute. “Batzuentzako etxebizitza; beste batzuentzako, burutu ditzaketen proiektuen irtenbide”. Eraikinari bizia eman gura diote, eta lursailak erabili.

Adierazi dute bizipen eta egoera ugaritatik datozen herritarrek direla. Egoera gaitzean ei daude: “Gizarte antolaketa ahul honek bultzatuta guztiok egin dugu estropezu harri berean, baina orain putzu berean gaude, eta denon indarrak batu ditugu putzu horretatik irteteko”. Gaineratu dute ez direla politi-

koak, “herriari doako promesak egiten dizkioten horietakoak”. Parte hartu gura duenarentzat ateak zabalik dituztela esan dute. “Gure barruek badute eraikin honen sabeleko hormak borborka jartzeko beste bizitasun”.

“Orain putzu berean gaude, eta denon indarrak batu ditugu putzu horretatik irteteko”

“Ez dugu zarata mugatzaileak manipulatzeko baimenik ez intentziorik”

Mugatzaileen inguruan EAJren akusazioei erantzun die Txosna Batzordeak

> JONE GUENETXEA

Durangoko EAJk prentsa ohar bidez Txosnaguneko zarata mugatzaileen inguruan adierazi duenez, PSE-EEk, Bilduk eta Aralarrek txosnek proposatutako zarata-mugatzaileen aldeko botoa eman dute, “udalaren irizpide teknikoaren kontra”. Aitzi-

ber Irigoras alkateak arrisku-tsuat jo du txosnek eurek kontrolatzea zarata mugatzaileak: “Espero dugu araudia errespetatzea”. Txosnaguneko adierazpen horren aurrean bere desadostasuna agertu du. Diotenez, urriaren 3an EAJk onartu egin zuen zarata mugatzaileak linea bidez

ezartzea, txosnek eskatzen zuten moduan. Urriaren 9an, berriz, jeltzaleek iritziz aldatu zutela diote. EAJren akusazioen aurrean Txosnaguneko dio zarata mugatzaileak udal teknikari eta soinu teknikariek jartzen dituztela, eta ez dutela hori manipulatzeko baimenik ez eta intentziorik ere.

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMO SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Badatoz Pantxike eta Patxikotxu

Gaur, 20:00etan jaurtiko dute San Fausto jaietako txupinazoa Dendak Bai elkarteko kideek

> MARKEL ONAINDIA

Guztia prest dago gaur San Fausto jaiei hasiera emateko. 20:00etan jaurtiko dute txupinazoa, udaletxetik, eta handik ordubetera Txosnagunean jaurtiko dute. Gaur agertuko dira herritarren aurrera jaietako ikurrak, Patxikotxu eta Pantxike, eta urriaren 20an alde egin arte festaren lekuko izango dira.

Dendak Bai elkarteko kideek botako dute udaletxeko balkoitik txupinazoa, eta pregoia ere eurek irakurriko dute. Hortik aurrera, dozenaka ekintza egongo dira jaiak ospatzeko. Disfraz Egunean koadrilaka edo taldeka egingo duten desfilea izango da aurtengo nobedadea. Urriaren 19a izango da mozorroak janzteko eguna, eta desfilea 18:30ean hasiko da Madalenan, eta Andra Mariraino joango dira.

Nobedadeez gainera, tradizioak ere mantenduko dituzte Durangon. *Zezenak dira* ekitaldian bigantxen aurrean korrika egiteko aprobetxatuko dute askok urriaren 12, 13, 14, 19 eta

20a. Etzi izango da patroiairene eguna, San Fausto. Udaletxean ohiturazko artopilen banaketa egingo dute 12:30ean, eta ostean, dantzariak saioa eskainiko dute.

Bestalde, barrakak Faustebidea kalean egongo dira, eta kaleko saltzaileen postuak Asкатasun etorbidean.

Txosnak

Txosnaguneko egitarauan ere San Fausto eguna izango da indartsuenetako bat. Paella lehiaketa egingo dute Pinondon, eta dagoeneko 700 lagun inguru daude apuntatuta. Erreka jai-tsieran ere ausartuko dira arratsaldean. Osterantzean, Gazte Eguna ospatuko dute bihar, eta urriaren 19an elkartasun Tantz tanta Eguna ere bai.

Disfraz Egunean koadrilaka edo taldeka egingo duten desfilea izango da nobedadea



Txosnagunea prestatzen ibili dira asteon, guztia gertu egon dadin gaurko.

Guka, euskaraz bizi gura dutenen gunea, prest bigarren urtez



Guka euskalgintzako karpa Pinondon egongo da, erreka alboan.

Pinondoko Txosnagunean aurren ere egongo da euskaraz bizi gura dutenen karpa: Guka. Durangon euskararen sustapenean beharrean dabilztan hainbat elkartek osatzen dute Guka: AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Ibaizabal ikastola eta Berbaro taldeak (Berbaro euskara elkarte, Plateruena Kafe Antzokia eta Anboto astekaria). Jaietan euskara erabiltzeko deia egin diete herritarrei, *Jaietan ere, euskaraz hobe* lemagaz.

Edatekoa eta jatekoa eskaintzeaz gainera, ekitaldiak ere egongo dira Gukan. Esaterako, urriaren 14rako umeentzako jolasak prestatuko dituzte, eta urriaren 18an Aiko erromeria taldeagaz dantzan ikasteko aukera egongo da.

> IZURTZA

Gimnasia eskolak emango dituzte ekainera arte, Abadetxean

> J.D.

Martitzen honetan hasi, eta ekainera arte gimnasia eskolen denboraldi berriari ekin diote Abadetxean. Azken urteetan legez, aurrerantzean martitzen eta eguen gutzietan batuko dira ordubetez: 20:15etik 21:15era.

Adin askotariko (20 eta 56 urte artean) bederatz lagunekin hasi dituzte eskolak. Gura dutenentzako ekimena zabalik dagoela gogoratu dute antolatzaileek, eta eskolak hasita dauden arren, oraindik izena eman daiteke Izurtzako udaletxera deituta. Gimnasia eskolen kostuaren zati bat udalak ordaintduko du. Horrela, parte hartzaileek ordaindu behar duten zenbatekoa 75 eurokoa da: hiruhileko bakoitzean 25 euro. Abadetxeko eskoletako oinarria gimnasia ariketak dira, baina bestelako jarduerak ere egiten dituztela diote antolatzaileek, era askotako jokoak eta aerobika, besteak beste. Gimnasia ariketak egin ahal izateko *step*-ak, banda elastikoak eta gomazko pilotak Izurtzako Udalak ipini ditu.

> MAÑARIA

Herriko ermitak konpontzen hasi zirela hogei urte bete dira

Mañariko Ermitauak taldeak, ermitak auzolanean konpontzen ditu

> M.O.

1993an herritar talde bat ermitak konpontzen hasi zen auzolanean. Urterik urte ekintza horretan jarraitu dute, eta dagoeneko ohitura bihurtu da. Hogeigarren urteurrena bihar ospatuko dute. Mañariko Ermitauak deitzen da lagun-talde hori, eta bertako kide Mikel

Urizarrek gogoratu ditu hasierak: “Ermitak ez zeuden egoerarean, eta jendeak lanerako berrondatea erakutsi zuen”.

Azterketa eta auzolana

Maiatzean Ermiten Ibilbidea egiten dute, eta baselizetan zer konpondu behar den aztertzen dute. Gero, auzolanerako deial-

dia egiten dute. Eta, azkenik, upategi batean bazkaltzen dute.

Bihar, 18:00etan meza ospatuko dute. 19:00etan Mañariko ermiten inguruko berbaldia eskainiko du Angel Larrea historialariak kultur etxean, eta 20:00etan, Mañariko Ermitauren ardoa aurkeztuko du Launa upategiko Iker Unzaluk.



Ermitauak, irteera batean talde argazkia aterata.

> ELORRIO

‘Spinning’ ikasleek diote bazkide onurak galdu dituztela

> M.O.

Kiroldegian *spinning* ikastaroetan parte hartzen dutenak hase-re agertu dira prezio publiko berriekin. Orain arte, igerilekuko abonatu izanda, beharpenak jasotzen zituzten, baina horrek dagoeneko ez die balio. Hemendik aurrera, kiroldegiko abonatu integratua –igerilekua eta gimnasioa– ordaindu behar dute abantailak edukitzeko. Beraz, 175 euro urtean abonatu integratugatik, eta beste 75 euro, hiru hilero, ikastaroengatik. Abonatu integratua barik, hiru hileroko prezioa 130 eurokoa izango da. Igerilekua soilik erabiltzea, oster, 108 euro kostako da urtean. Erabiltzaileek diote igerilekuko abonatu izanda zeuzkaten onurak galdu egin dituztela. Orain arte igerilekura eta *spinning*-era joan den herritar batek, zerbitzu bera erabiltzeko, urtean 170 euro gehiago ordaindu beharko dituela kritikatu dute. Udalean euren egoeraren berri emateko gutun bat idatzi dute, eta azaldu dutenez, sinadurak batzen hasi dira.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

ORGAK, PLATAFORMAK,
HONDEATZAILEAK,...
ERABILTZEAN
SEGURTASUNA
ZAITZEKO
IKASTAROAK

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.net

JASOGAILUAK



Artaziak




Beso artikulatuak



Beso artikulatuak

PRODUKTU BERRIAK



Armiarma
jasogailua



Beldar jasogailua



Mozketa
konpresorearekin



Pertsona
bakarrekoa

www.alkimax.com



> IURRETA**Euskara eta kirolari lotuta 28.000 euro banatuko dituzte**

2013an euskara ikastaroak egin dituzten iurretarek diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute. Baita Udako Euskal Unibertsitateira joan direnek ere. Matrikula kostuaren %50 jasotzeko aukera dute batean zein bestean jardun duten herritarrek. Hurrenez hurren, 1.000 euroko eta 200 euroko diru atalak lotu ditu udalak.

Musika eta kirola

Bestalde, musika ikastaroak egin dituzten iurretarren artean 6.800 euro banatuko ditu udalak. Iurretan eskaintza hori ez daukatenez, musika kontserbatorioa edo musika eskola publikoa dagoen tokiko herritarrekin alderatuta, iurretarek tarifyan ordaindu behar duten aldeari aurre egin dio udalak; horretarako 6.800 euro gorde ditu. Kirola egiteko beste herri batzuetako kirol instalazioak erabili dituzten iurretarek ere aukera berdina izango dute. Deialdi horretara 20.000 euro bideratu ditu udalak.

Diru-laguntza horiek jaso gura dituztenek abenduaren 5era bitartean egin dezakete eskaria.

Azkenean ez dute McDonald's jatetxerik eraikiko

Maiatzean eman zion Iurretako Udalak obra lizentzia janari lasterreko enpresari, hala ere, atzera egin du

> AITZIBER BASAURI

McDonald's jatetxea eraikitzeo egitasmoa bertan behera utzi du AEBetako janari lasterreko konpainiak. Horrela baieztatu du Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak aste honetan. Udalak joan zen maiatzean eman zion obrak hasteko baimena McDonald's enpresari, eta hi-

Janari lasterreko jatetxea eraikitzeo obra baimena eskatu zuen McDonald's enpresak

ru hilabeteko epea zuten lanei ekiteko. Hala ere, denbora tarte horretan atzera egin du konpainia estatubatuarrek. Beraz, momentuz behintzat, McDonald's jatetxerik ez dute eraikiko Durangaldean.

Ertzilla industrialdean, bide ondoan, janari lasterreko jatetxea eraikitzeo obra baimena eskatu zuen McDonald's enpresak. McAuto 24 orduko janari zerbitzua ere jarri gura zuten martxan. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, "udalak ez du inoz interes berezirik izan McDonald's konpainia herrian egon zedin. Eurek lizentzia eskatu zuten, eta dena zuzen egon zenez, baimena eman zitzaien". Hiru hileko epea izan dute lanekin hasteko. "Hala ere, ematen duenez, hobeto pentsatu dute, eta tarte horretan baimena ez baliozkotzea erabaki dute". Horrela jakinarazi dute idatzi baten bidez, udaletxean.

Sarbideekin zalantzak

Alkateak adierazi duenez, McDonald's jatetxearen sarbideak zelan bideratu ez dute oso argi eduki konpainiako ardura-



Ertzilla industrialdean, bide ondoan, eraiki gura izan dute McDonald's jatetxea.

Alkateak azaldu duenez, McDonald's jatetxearen sarbideak zelan bideratu ez dute oso argi izan

dunek. Eta gainera, enpresako hainbat sailen artean ere desadostasunak egon dira.

McDonald's enpresaren etorrerak era guztietako iritziak-sortu zituen Durangaldeko herritarren artean.

> GARAI**Txakurrak batzearren kobratu egingo dute**

Txakurra batzea 63 euro kobratuko du udalak

> MARKEL ONAINDIA

Garaiko Udalak bide publikoetan txakurren bat jasotzean, jabeari kobratu egingo dio hemendik aurrera. Tasa berriak ezarri ditu gai horregaz lotuta, orain arte ez zeudenak. Joan zen

asteen ospatutako udalbatzarrean onartu zuten aho batez. Txakurra batzea 63 euro kobratuko du udalak.

Horrez gainera, harrera zentroan txakurrak pasako dituen egun bakoitzeko 12 euro ordain-

du beharko ditu jabeak. Albaitariak azterketa egiten badiote, eta parasitoak kendu, 43 euro gehiago ipini beharko ditu. Eutanasia egiten badiote 56 euro kobratuko dute, eta erraustea 60.

Tasen ordainketa Garaiko udaletxean egingo dute jabeek, txakurra harrera zentroan batu aurretik.

Bestalde, arriskutsuak izan ahal diren txakurrak edukitzeagatik lizentzia emango dute, eta 50 euro ordaindu beharko dute jabeek.

> MALLABIA**Gernikako juntetxea bisitatuko dute jubilatuek****> JONE GUENETXEA**

Mallabiko jubilatuek Gernikako juntetxea bisitatzeko irteera antolatu dute. Urriaren 26rako jarri dute hitzordua. Eguneko egitaraua goizeko 09:00etan abiatuko dute herrian. Jubilatuen aurreko aparkalekuan elkartuko dira parte hatzaile guztiak, autobusa hartzeko. 11:30ean, juntetxea ikusteko txanda hartuta dute. Ondoren, 12:30ean, Bakearen museoa bisitatuko dute.

11:30ean juntetxea ikusteko txanda hartu dute. Ondoren, Bakearen museoa bisitatuko dute

Bazkaltzeko, Kortezubiko Lezika jatetxea aukeratu dute. Ostean, Mallabira itzuliko dira. Bidaia horretan parte hartu gura duten jubilatuek guztiek urriaren 20a baino lehen izena eman beharko dutela adierazi dute egitarauaren antolatzaileek.

> OTXANDIO**Margo lehiaketa berbagai dela, batzarra deitu dute hilaren 16an****> JOSEBA DERTEANO**

Udaleko Kultura Batzordeak urtero herrian egiten den margo lehiaketaren inguruko hausnarketa bultzatu gura du. Urtea joan eta urtea etorri, ekimen horretan parte hartzaile gutxi egoten direla azaldu dute, eta lehiaketaren etorkizunari buruz hausnartzeko sasoia heldu dela.

Jende gutxik parte hartzen du eta hausnarketa proposatu dute

Horrela, datorren egueztenean, urriaren 16an, batzar irekia egingo dute udaletxean. Batzarra 20:00etan hasiko da udalbatzar aretoan, eta herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete. Bertan ekimena baloratu eta herritarren iritziak jasoko dituzte. Urtero urri amaieran egiten dute lehiaketa. Aurten betiko leze egingo dute eta hartutako erabakiak datorren urtetik aurrera ipiniko dituzte indarrean.

> ATXONDO**Mikologia erakusketa egingo dute urriaren 20an, Apatako frontoian**

Aurreko egunean mendian aurkitutako perretxikoak erakutsiko dituzte

> JOSEBA DERTEANO

Atxondoko mikologia taldeak eta Elorrioko Iturritzoroko elkar-tearteak mikologia erakusketa bat antolatuko dute urriaren 20an, domekan, Apatako pilotalekuan. Aurreko egunean batutako aleekin osatuko dute erakusketa. Aurten 23. ekitaldia antolatuko dute. Urte batean Elorrioren, eta hurrengo urtean Atxondon atontzen dute perre-

txikoen erakusketa. Horrela, aurreko egunean, zapatuan, otzara hutsak hartu eta Oleta ingurura joango dira perretxiko eta onddo bila. Autobusak 08:00etan irtengo du Elorrioko probaleku zaharretik, eta 08:15ean Atxondoko frontoi parean zain daudenak jasoko ditu. Goiza Oletako basoak arakatzen eman ondoren, eguerdian itzuliko dira Apata.

Gero, perretxikoak eta onddoak sailkatu egingo dituzte. Gura duenak bertara eraman ditzake batutako perretxiko eta onddoak eta, dudarik badute, mikologia taldekoak dudak argitzen saiatuko dira.

Domeka eguerdian, erakusketaren egunean, jan-edana ere egongo da. Perretxiko pintxoak eta edaria (ardoa, sagardoa...) 1,5 eurotan salduko dituzte.

> DURANGALDEA ASTEON**Elorrión, Amuriza eta Estiballesekin bertso afaria, Gaztetxean**

Gaur gauean bertso afaria izango dute Elorrioko Gaztetxean, Miren Amuriza eta Arkaitz Estiballes bertsolariekin. Epaiketa politikoen kontrako *Libre* egitasmoaren baitan egingo dute bertso afaria. Tiketak 20 euroan ipini dituzte salgai Parran, Portalekuan eta Gaztetxean. Afaria 21:30 aldera hasiko da.

Arrazoia eman diote Vodafoneri antenen ordenantzaren auzian

Elorrioko Udalak telefonía konpainiei tasa bat ipintzea onartu zuen 2007an, Gazeta, Iguria eta San Agustineko lurrak erabiltzearen. Vodafonek epaitegietara jo zuen ordenantzaren kontra, eta epaileek orain arrazoia eman diote telefonía enpresari. Ordenantza onartu arren, ez da aplikatzen izan, eta, beraz, epaiak ez dauka eragin errealik.

San Fausto jaietako argazki lehiaketa antolatu dute

Durangoko F-Stop argazki elkarteak Sanfaustoetako argazki lehiaketa antolatu du lehenengoz. Lehenengo asteburuan ateratako argazkiak urriaren 16a baino lehen bidali beharko dira fstop.durango@gmail.com helbidera. Lehen saria 300 eurokoa izango da, bigarrena 200ekoa eta hirugarrena 100 eurokoa. Gero, lanak San Agustin kulturgunean ipiniko dituzte ikusgai.

Tren eta autobus zerbitzu bereziak Durangoko jaietan

Sanfaustoetarako Euskotrenek tren zerbitzu berezia prestatu du urriaren 11rako, 12rako eta 19rako. Barikuan bi ordurik behin izango dira, eta zapatuetan orduro. Bizkaibusek ere gaueko zerbitzua eskainiko du bariku-zapatuetan Durango-Elorrio linean, 05:45era arte, orduro.

> ABADIÑO**Bankuek alegazioak aurkeztuko dizkiote MZ-ko likidazio planari**

MZ enpresaren hartzekodun nagusiek, bankuek, alegazioak aurkeztuko dizkiote likidazio planari

> I.E.

Konkurto administratzaileek asteon sindikatuak jakinarazi dietenaren arabera, enpresaren hartzekodun nagusiek (hiru bankuk) alegazioak aurkeztuko dizkiote Mendiguren y Zarraua enpresaren likidazio planari.

Luis Torres ELAko ordezkariaren berbetan, "bankuek alegazioak aurkeztuko dituzte, ez daudelako prest konkurto administratzaileek proposatu duten kita onartzeko, hau da, kredituak murriztu edo kobrantza geroratzeko". Horrela, eta

administratzaileen, bankuen, beste hartzekodunen eta erosle posibleen arteko adostasunik ezean, likidazio prozesuak ez du aurrera egingo: eta horrek enpresa behin betiko ez ixteko aukerak deuseztatuko lituzke. Sindikatuak uste dute, "enpresa interesdunek bankuekin zorren inguruan zuzenean negoziatzea" dela aurrera egitea ahalbidetuko duen bide bakarra.

Lau enpresak agertu dute, momentuz, Mendiguren y Zarraua, edo bere jardunaren parteren bat erosteko interesa.



Lau enpresak agertu dute, momentuz, MZ erosteko interesa.

Langileek euren eskakizunak helarazi dizkiete enpresari**> JOSEBA DERTEANO**

Tratamientos Termicos Iurreta enpresak Abadiñon duen zentroan, bederatzi langileetik zortzi greban daude. Datorren astean lau hilabete egingo dituzte greban. ELAko Jon Iñaki Etxebarriaren esanetan, aste honetan enpresako abokatuarekin batzartu, eta euren eskakizunak helarazi dizkiote: "Lehenengoz batu dira gurekin, orain arte uko egin diote". Bestalde, joan zen astean lan arloko ikuskaritza teknikaria etorri zen enpresara. Izan ere, Etxebarriaren esanetan "enpresa langileen grebarako eskubidea urratzen ari da. Horiek bertatik bertara ikusi ahal izan ditu teknikariak".

> BERRIZ**Sarria-Besoita pista konponduko dute**

Basopista kaltetuta dago eurite eta lur-jausiengatik

> AMAIA UGALDE

Urte hasierako euriteek eta lur-jausiek Sarria eta Besoita arteko basopista nahiko kaltetuta utzi zuten. Orain arte konponketak zatika egin dituzte, eta orain pista osoa txukunduko dutela adierazi du udalak. Basopista zeharkatzen duten

lurretako auzokideekin batzartuko dira udal arduradunak, lanetarako diru apur bat ipini beharko dutelako. Lanok 49.000 euroko aurrekontua dute. Berrizko Udalak dirua aurrerratu duela azaldu du, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 36.000 euroko diru-laguntza emango du gero.

Iremiñe taldeak dantza ikastaroa eskainiko du**> A.U.**

Aurten ere euskal dantza ikastaroa eskainiko du Iremiñe dantza taldeak, azaroan hasi eta apirilera arte. Astelehen iluntzeetan izango dira eskolak, 20:00etatik 21:30era, Iremiñeren lokalean.

Izena Kultur Etxean eman daiteke. Ikastaroak 15 euro balio ditu berriztarrentzat, eta 20 euro kanpotarrentzat.

> ZALDIBAR**Ilargi taldearen argazki lehiaketaren XXIII. aldia**

Azaroaren 20ra arte jasoko dituzte lanak

> I.E.

Herriko Ilargi argazkilari taldeak, Zaldibarko Udalaren babesaz batera antolatu du argazki lehiaketa, eta XXIII. edizioa ospatuko dute aurten. Edozein gairi buruzko bi argazki aurkeztu ahalko ditu lehiaketan parte hartu gura duen argazkilari

bakoitzak. Azaroaren 20a baino lehen jasoko dituzte argazkiak elkartearen Olazarko egoitzan, edo Imendia dendan.

Lau sari daude jokoan: lehenengoa, 300 eurokoa; bigarrena, 250ekoa; hirugarrena, 200ekoa; eta herriko argazkilari onenarentzako 150 eurokoa.



GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



Bartholo's
hizkuntza akademiaren
ekimena, langabetuei bideratuta.

• Kostu baxuko eskolak goizez, eta atzerrira bidaltzeko aukera.

• Astean ordu biren truke, 40 € hilean.

Informazio gehiago nahi izanez gero,
Estherrekin jarri harremanetan:
Tel.: 656 797 344
Posta elektronikoa: mrs_dol@hotmail.com

► Berbaz

Jon Badiola Totorikaguena | Nutrizionista | 24 urte, lurreta

“Guk baino komunitate ikuspegi handiagoa dute Sacabamban”

Cochabamba (Bolivia) hiru hilabete egin ditu Jon Badiola iurretarrak. Nutrizio kontuak landu ditu nekazariekin

> AMAIA UGALDE

Sanmigeletako bigarren astebururako heldu da Jon Badiola Euskal Herrira. Bolivian, Cochabamba departamenduko Sacabamba herrian ibili da kooperante, hiru hilabetez. Egondaldi horretan asko ikasi duela azaldu du nutrizionista iurretarrak.

Zein izan da zure lana Sacabamban?

Beka batekin joan naiz, Eusko Jaurlaritzaren gazteen lankidetzaren programagaz. Boliviako Cipca Gobernuaren Kanpoko Erakundeagaz ibili naiz. Euren nekazarien bizimodua hobetzeko ikerketak egiten dituzte, eta nutrizionista lanetan aritu naiz. Horrez gainera, ahal nuen guztian laguntzen nuen.

Elikadura arloan, zer landu duzu?

Sacabamban arazoa dute uragaz. Euri gutxi egiten du, eta egiten duenean denbora gutxian asko egiten du. Gure putzuen antzeko egiturak dituzte, eta ura urte osorako heldu dadin saiatzeko dira. Cipcan uraren erabilera eraginkorra izateko lanketa egiten dute. Berotegi batzuk ere ipini dituzte, eta han sartzen dituzten produktu batzuk nekazariek ez dituzte ezagutzen. Fruta eta barazki horien azalpenak egitea zen nire beharra; adibidez, osasunerako zer onura daukaten, edo propietateak dietan zelan sartu ahal diren azaldu nien. Dieta batzuk egin genituen, eta sukaldaritza praktika batzuk ere bai.

Gabeziak al dituzte euren dietan?

Eurak oso ohituta daude patata, artoa eta garia jatera. Hori da euren dietaren oinarria. Fruta eta barazkiak bitaminak eta mineralak dira, eta igartzen da gutxi hartzen dituztela. Osasunerako eta umeentzako zelako garrantzia duten azaldu diegu hitzaldietan. Euren betiko jakiekin jarraituko dute, baina produktu berri batzuk ere sartu ditzakete. Errazen produzitzen dituzten produktuek, edo lurrera ondoen egokitzen direnak jarraitu egingo dute. Hango klima nahiko gogorra da, eta goizean leia egoten da. Frutarbolak eta hondatu egingo lituzke, eta horregatik dute garrantzia berotegiek.

Nekazariek zelan hartu dituzte produktu berriak?

Ondo. Azkenean euren ez dituzte ezagutzen, eta ezezaguna den guztia nobedadea da. Auzokideengana joaten dira, eta ortuan zer irten zaien ikusten dute, eta galdezka hasten dira: ea zelan ipini dituzten, ea zelan sukaldatu dituzten... nobedadea da.

Ez da erraza izango ohiturak aldatzea...

Gaitza da, baina gustatzen zaizkie gauza berriak. Adibidez, freskagarriak egin genituen. Ur asko ez dagoenez, irakin egin behar da, eta ezer barik irakin beharrean, erremolatxagaz freskagarri batzuk egin genituen. Askok gustatu zitzaizkien.

Zuk ere ikasiko zenuen...

Pilo bat! Hango errezeta piloa dauzkate! Lehenengo, hara heldu nintzenean berbak ikasten egon nintzen, janariak beste izen batzuk dituztelako. *Arbeja* ilarra da, *zapaio* kalabaza da, *durazno* melokotoia, *mani* kakahuetea... Ezagutzen ez nituen berba piloa ikasi behar izan nituen. Gero, produktu batzuk ez nituen ezagutzen,

“

Patata, artoa eta garia dira hango dieten oinarria, eta igartzen da bitamina gutxi hartzen dutela”

“

Hitzaldietan berba egiten nuenean, beti zegoen baten bat kitxuara itzultzen. Askok eskertzen dute kitxuaz berba egiteko ahalegina”

kinoa, adibidez, eta euren janaria zelan prestatzen duten ere azaldu zitzaizkien. Trukea egon da. Orain, hemen ahalegindu behar naiz han egiten zituzten zopa batzuk eta bestelako janariak sukaldatzeko.

Ur falta da euren arazo nagusienetakoa?

Familia bakoitzak bere putzua dauka, batzuk handiagoak dira, beste batzuk txikiagoak, batzuetatik ura filtratu egiten zen... Hor hobekuntza batzuk egin dituzte. Igartzen da ura daukanak ortua hobeto daukala, eta fruta gehiago lortzeko aukera... Komunitatean guztia euren artean banatzeko ohitura handia daukate, eta gehiago daukanak ez daukanari ura pasatzen dio. Guk baino komunitate ikuspegi handiagoa dute. Mila batzar eta mila ezta-



baida egiten dituzte, eta horrek laguntzen dute adostasun minimo batera heltzen. Eta, udaletxera joan behar badute, sindikatu edo talde moduan joaten dira.

Zelako hartuemana izan duzu boliviarrarekin?

Oso ona. Oso zabalak dira, eta espainiarrarekiko oso ikuspegi ona dute. *“Los colonos, los invasores”* esaten badute ere, oso hartueman ona daukate, eta oso erraza da eurekin berba egitea. Batzuek familiakoren bat edo ezagunen bat daukate hemen, eta interesa daukate jakiteko hemen zelan bizi garen.

Hizkuntzarekin arazorik?

Egon nintzen herrian, Sacabamban, kitxua egiten dute berba, eta orduan hartuemana gaitzagoa zen. Bazekiten gaztelaniaz, baina gure gaztelania eta euren oso desberdina da, eta hitzaldietan berba egiten nuenean, beti zegoen baten bat

itzultzen. Euren, gainera, asko eskertzen dute kitxuaz ahalegina egitea. Nik berbaren bat ikasi dut. Tratuan oso ondo, hala ere. Hori bai, gizonak andreak baino zabalagoak ziren. Ez dakit sukaldearen eremua delako-edo, baina pixka bat isilago zeuden. Edozein modutan ere, ondo. Eskertzen zuten informazioa, eta harritu egiten ziren: Gizon bat sukaldean!

Ama lurra garrantzitsua da kitxuentzat.

Bai, Pachamama. Jainkosatzat daukate haiek. Askok baloratzen dute. Edozer gauza egiten duzunean, beti dago Pachamamari aipamenen bat. Gero kontraesan erortzen dira, gauza asko botatzen dituzte-eta lurrera, agian, ez direlako kontziente Pachamama bera zikintzen dutela. Euren diskurtsoan oso presente dago lurra. Guk hori galdu egin dugu, eta tristea da; berriro hasi beharko ginatke lurra apur bat zaintzen, bestela jai daukagu!



Hemen, Kafeari Baqué esaten diozu



Ondorengo
galderaren
erantzuna
badakizu...

Cafés Baqué
produktuen
otzara...
zuretzat!

Galdera: Zein da Durangoko
Euskal Liburu eta Disko azokaren
izen berria?

Zure datuak eta erantzuna
helbide honetara bidali



zozketa@anboto.org edo
Bixente Kapanaga, 9-lurreta

Iraileko irabazlea: **Jesus Maria Arenaza**. Zorionak!

Iritzia

> GUTUNAK



gutunak@anboto.org
eguzteneko 17:00ak arteko epea

SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI
MAEZTU**

Aralar



Aberastasuna birbanatuz

Zerga-politika dirua biltzeko tresna da. Horrez gain, eta hori baino are eta garrantzitsuagoa, justizia soziala eta berdintasuna aplikatzeko tresna ere izan beharko litzateke. Progresibitatea da aldarrikatzen dugun zutabea: gehien daukanak gehiago ordaintzea, herriaren aberastasuna birbanatuta, oinarritzko zerbitzuak pertsona guztiei bermatzeko. Zerga politikak edo fiskalitateak horretarako ere balio du. Baina udal mailara jaitsiz gero, konturatuko gara errealtate hori guztiz baldintzatuta (txarrerako) dagoela, Bizkaiko Diputazioak ezartzen dituen zerga arauekin. Era horretan, hutsik dauden 1.500 etxebizitza baino gehiagori gain zerga bat ezarri nahi badiegu, oinarritzko eskubide batekin batzuk espekulatzen ari direlako, Bizkaian ezin dugu. Hori lortzeko neurri zehatzak hartzeari uko egiten dio EAJren esku dagoen aldundiak, bere foru arauetan. Horrelako beste hainbat adibide daude, adibidez, ibilgailuen gaineko zerga. Gehiago kutsatzen duenak gehiago ordaindu dezala nahiko genuke, baina hor ere, foru arauak, automobilaren zaldi-indar fiskalen arabera zergatzera derrigortzen gaitu.

Udaletxean berriro datorkigu zerga-politikaren inguruan erabakiak hartzeko udal-etzabaida. EH Bildu, berriro ere, saiatuko da progresibitatearen eta aberastasunaren banaketa oinarri hartuta proposamenak egiten. Izan ere, testuinguru horretan krisiari ezkerretik erantzun behar zaiola uste dugu, erantzun horrek sozialagoa izan behar duelako. Aitzitik, susmoa dugu, oraingoan ere, Durangoko jeltxideek euren lehengusu aldundien aitzakia jarriko dutela betiko eredua mantentzeko.

Denok izan behar dugu Euskal Herrian aske!

Konponbide garaia da. Euskal Herriko gatazkaren ondorioak gainditu eta gatazka politikoa bera konponbidera eramateko garaia. Urte luzez gure herria Madril eta Parisko agintarien eskuetan txotxongiloen antzera erabili izan dute. Baina Euskal Herriak konponbidearen aldeko hautua egin du. Gero eta gehiago gara gure herriari aterabide justu eta demokratiko bat emateko lanean dihardugunak. Hala ere, Raxoik eta bere morroiek itsututa jarraitzen dute. Espainiar estatuan aurrera eramaten dabilen gestio ekonomiko eta politiko basatia dela eta, logika politiko gutxiarekin jokatzeko du PPK. Estatua demokratizatzeko aukera probestu beharrean, atzeraka pauso handiak ematen jarraitzen du gobernuak. Gerra estrategian mantentzen da, zabaldutako prozesua blokeo egoerara eramateko. Logika horri jarraituta atxilotu zituen pasa den irailaren 30ean 18 euskal herritar, preso-erregimenaren eskubideen alde lan egiteagatik.

Euskal Herrian ematen ari diren pausoei gerra estrategia horretan sakonduta erantzun dieten. Hori da preso politikoen sakabanaketa mantenduz lortu nahi duena: gerran jarraitu, konponbidea badatorrela dioen herriari. 600 preso baino gehiago ditugu Espainiako zein Frantziako kartzeletan. Euren lan politikoagatik dituzte preso. Beharrezkoa da

preso eta iheslariak etxeratzea, dagokien izaera eta aitortza politikoa eskuratu eta herri honek merezi duen hitza lortzeko.

Zentzu berarekin heldu dira urriaren Auzitegi Nazionalen aurrera eramango diren epaiketak. Guztira 80 euskal herritar epaituko dituzte Euskal Herriaren alde borrokatzeagatik. Horien artean daude *Purutxo* eta Eñaut durangaldeko gazteak. Berriz ere, konponbidearen aurkako jarrera adierazten jarraitzen du Raxoien gobernuak, herri honen eskaerak bestelakoak badira ere. Gazteon eta Herriko Tabernen aurkako epaiketa prozesu demokratikoaren aurkako eraso da. Konponbide justu eta demokratikoaren alde dagoen herriaren aurkako eraso da.

Gazteok konponbidearen alde lanean jarraituko dugula esatera gatoz. Euskal preso eta iheslariak etxeratzearen alde borrokan jarraituko dugula esatera gatoz, eta dagokien aitortza politikokoaren alde lanean izango garela. “Epaiketak ez!” oihukatzen gatoz, eta guk ere *herri harresia* eraikiko dugula esatera. Denok izan behar dugulako Euskal Herrian aske!

Epaiketak ez!


Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!

Durangaldeko Ernai gazte antolakundea.



Eskerrik asko Zorrotza!

Euskaraz bizi nahi dut herri lasterketaren ondoren, hainbat zornotzarrek familia argazkia atera zuten Anboto eskuan hartuta. Horrela, Anboto Zornotzara zabaltzea aldarrikatu gura izan zuten.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak • telefonoa
 - helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
- Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko urriaren 11a
11. urtea - 517. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Nerea Mujika | Durango, 1960. | Gerediaga Elkarteko presidentea

“Gaur egungo azokak elkarlan barik ez du zentzurik”

> JONE GUENETXEA

Azoka berritzaile baten aldeko apustua egin du aurtengoa Gerediagak. Lehenengo nobedadea izen aldaketarena izan da. ‘Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka’ beharrean ‘Durangoko Azoka’ deituko diote. Bigarrena, Itziar Okariz artistak sortutako kartela, inor epel uzten ez duen horietakoa. Abenduaren 5etik 8ra izango da zita, Durangon.

48. edizioan azokari izena aldatzea erabaki duzue.

Durangoko Azoka izena jartzea arrazoi natural batengatik erabaki dugu. Liburu eta disko azokatik kultur plaza handi batera pasatu gara. Izen berriak modu irekia eta osatuago batean azaltzen du gaur egungo azokaren izaera. Horrela ulertu du behintzat izena aldatzea erabaki duen Gerediagako zuzendaritzak.

Aurtengoa azokaren kartela guztiz berritzailea da.

Ez da ohiko kartel bat. Egilearen azalpena entzun eta gero, oso aproposa iruditu zait. Gainera, garbi geneukan etorkizunera begira azokak kalitatezkoa eta berritzailea izan behar zuela, eta uste dut bide horretatik goazela.

Goenagaren kontratua ez berritzeak izan dituen ondorioez hausnartu duzue? Erabakia hartu aurretik hausnartu genuen gehien, eta hori benetan gogorra izan zen. Erabakia behin hartuta, oso hilabete gogorrak pasatu ditut, bai modu pertsonalean, baita Gerediagako kide moduan ere. Krisi horretatik ikasi eta sufritu

egin dugula esango nuke. Prentsa oharra kaleratuta ez genuen ondo egin. Gure intentzioa ez zen inor mintzea izan. Hala ere, langile eta enpresa edo elkarte askotan gertatzen den moduan, arazo profesional bat izan zen, eta gure intimitatean geratuko da orduan gertatu zena.

Une hartan ematen zuen elkarlanaren eta guneen azoka kolokan zegoela.

Ez dugu inoiz zalantzan jarri hori denik azokak behar duen eredua. Planteamendu hori ez zen iazko azokan sortu. Berbaro elkarteagaz Haur Literatur Aretoa hainbeste urtean antolatu dugu, eta gerora, beste elkarte batzuekin ere azoka hazten joan da. 2008an Ahotsenea txertatu zen, eta 2009an Azoka Telebista. 2011ko plan estrategikoan ere jaso genuen eredu hori indartu behar genuela. Gaur egungo azokak elkarlan barik ez du zentzurik. Baina jende askok borondatezko lanagaz parte hartzen duen azoka batean desadostasunak izaten dira, baina normaltasun baten barruan.

“

‘Durangoko Azoka’ izena jartzea arrazoi natural batengatik erabaki dugu”

Zeintzuk dira azokaren erronkak?

Plan estrategikoak zehazten dituen erronkak honako hauek dira: Durangora, herri osora azoka zabaltzea, kulturaren arlo



ugariak gureganatzea, azoka bakar bat islatzea, eta jende gaztea erakartzea. Hurrengo belaunaldientzat, modu natural batean, abendua heldzerakoan azoka euren elkargunea izatea gurako genuke. Ahalegin berezi bat egin behar dugu horretan.

Azokak igarri al du krisi ekonomikorik?

Azken bi urteotan galerak izan ditugu azoka antolatzerakoan. Krisiak stand gutxiago jartzea ere eragin du. Dirua murriztu den neurrian, guk kontrara egin dugu:

azoka indartu, herrira zabaltu, eta hainbat eragile mahai baten bueltan batu.

Aurtengoa nobedaderik kontatu daiteke?

Hainbat elkarte eta norbanakoren laguntza jaso dugu Eskoziako errealtatea azokan lantzeko. Oso interesgarria izango da. Esate baterako, areto nagusiari buelta bat eman gura diogu, ikaslearen eguna berreskuratu dugu, eta antzerki amateur emanaldiak eskainiko dituzte San Agustín kulturagunean.

Itziar Okarizek Virginia Wolfen berbekin osatu du azokako aurtengo kartela

Gerediaga Elkartea eskatuta, Itziar Okariz artistak egin du kartela, aurtengoa



> I.E.

Gerediaga Elkartea eskatuta, Itziar Okariz (1965, Donostia) artistak egin du Durangoko Azokaren 48. edizioa iragarriko duen kartela. Egileak, eta Gerediaga Elkarteko Nerea Mujika eta Txelu Angoitiak erakutsi zuten kartela eguaztenean, Durangoko Plateruenean.

Virginia Wolf idazle ingelesaren *Gela bat norberarena* liburu esaldi batekin osaturikoa da kartelaren irudia. Bilbon eta New Yorken lan egiten du Okarizek, eta bere ekintza artistiko baterako egindako gidoia da kartelaren oinarria.

Gela bat norberarena liburuaren bigarren kapituluaren hasierako esaldia irakurtzen du Okarizek performance horretan, esaldi bat etengabe errepikatuta ordu erdiz jarraian. Irakurraldi bakoitzean, aurre-

ko lerroko lehen hitz bat eza-batzen du, testua agortu arte laburtuta.


Errepikapenaren bitartez, sinboloak testuingurutik atera gura ditu Okarizek, eta kasu honetan, hitzekin egin du ariketa hori. Virginia Wolfen esaldiagaz, “emakumeei eta literaturari” egin die, Okarizek, besteak beste, erreferentzia.

Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko lehendakariak azaldu duenez, “artistaren espiritu berritzaileak azokaren etorkizunarekin bat egiten duelako” eskaini diote Okarizi 2013ko azokako kartela egitea. Txelu Angoitia Gerediagako bazkideak azpimarratu du “euskal sortzaile garrantzitsuenetarikoa bat” dela Okariz: “Beti abangoardian aritu da, eta askoren ustez, transgresorea, subertsiboa eta feminista da”.

> ARGAZKIGINTZA

Zalao Fuertesek 'Egun bat, argazki bat' aurkeztu du

Atzo inauguratu zuten Fuertesek erakusketa, Durangoko Plateruenean, eta urriaren 31ra arte izango dira bere argazkiak bertan ikusgai



Uda honetan Seattlen ateratako irudiagaz egindakoa da erakusketaren kartela.

> ITSASO ESTEBAN

Atzo zabaldu zuen Zalao Fuertes argazkilariak Durangoko Plateruenean ipini duen erakusketa. *Egun bat, argazki bat* proiektuaren lagin bat biltzen

du erakusketa horrek, eta urriaren 31ra arte egongo da Plateruenean ikusgai. Zalao Fuertesek berbetan, "jolasa" da bereztat proiektu hori, eta gustura jardun du bi urtez mugikorra-

gaz egunean argazki bat egiten. Urtebeterako proiektua zen, baina gustura dabil Fuertes, eta jarraitu egiten du egunero proiektua gauzatzen: esaterako, atzo Espainiako Kongresuan abortu eskubidearen alde hiru emakumek egin zuten ekin-tzaraz, lengoia propio bat garatu duela sentitzen duela dio egileak: azken aldian egiten dituen argazkiak esanguratsuagoak direla uste du. Hain zuzen, udan Mexiko eta AEBetara egindako bidaian egindakoak dira erakusketan bildu dituen argazkietako gehienak. Azkenaldian

Begirada zabaldua

Proiektua martxan eduki duen denboran egindako argazkietatik, gustukoen dituen 45 aukeratu ditu Fuertesek Platerueneko erakusketan ipintzeko. Denboragaz, lengoia propio bat garatu duela sentitzen duela dio egileak: azken aldian egiten dituen argazkiak esanguratsuagoak direla uste du. Hain zuzen, udan Mexiko eta AEBetara egindako bidaian egindakoak dira erakusketan bildu dituen argazkietako gehienak. Azkenaldian

argazki "metaforikoagoak" egiten dabilela dio argazkilariak, eta autoerretratu eta erretratu gehiago egiten dituela.

Platerueneko erakusketaren kartela egiteko, aldiz, Seattleko *fish & chips* jatetxe batean egindako argazkia aukeratu du: "bidaia-aren, hegoen, askatasunaren" zentzua islatzen duelako.

Mexikon argazkigintza ikasten zegoela, 2011ko urrian, irakasleak proposatuta ekin zion egitasmoari

Gai eta estetika mota askoko argazkiak dira. Oharkabean igarotzen zaigun egunerokotasunari begiratzeko astia hartuta egindakoak: "Begiak zabaldu; gora, behera, eta alboetara begiratu, eta 'gaur hemen dago argazkia' esatea da", Fuertesek berbetan, "ariketaren muina".

"Modu batean protesta bat ere bada *Egun bat, argazki bat*", eta egunero bonbardatzen gaituzten irudiei geure ikuspegitik erantzutea defendatzen du.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA
URIEN

Ikaslea



Lampedusa

Katodikotasunaren ekaitzaren azpian, putzu sakonegietan amildu da memoria; lurperatua izan da, lur zantarrarekin ehortzia. Isildu egin da gizartea amnesia-ekin gaixotuta. Herriak inbaditzeko aitzakia bila perfekzioaren mugetan zirrimarratzen diren hondamendietarako planak; eta zirkuluan mugiarazten da historia, Casandrak esan zuen ez gaudela salbu, eta nor gogoratzen da orain iraganaz? Nor etorkizunaz? "Lehen-goak ez ahanzt, gerokoez oroitu". Odoldutako harresiek Europa aldera iraganeko itzalak dakartzate, bizkorregi ahaztu dugu gu ere atzerritarrak izan garela, deserriaz herria egin dugula sarritan; humanitatea historiako mende luze guztietan izan da migratzailea, ezin gaitzek hori barik ulertu. *Panem et circenses*. Ogia ematen dute, ugari, eta zirkua baizik ez da begi-bistan; isilik eta geldia, horixe da helburua, jaio ondorengo lehen urteak ibiltzen eta hitz egina-razten, etengabe, eta behin ikasita, eserita eta mintzorik gabe gelditzen gara. Etorkizunarekin ametsetan atzerrira begiratzen duten horiek ez dute urrune-joatea espero, bihar arte irautea baino ez, iraungipen horretan bizitza dastatzea. Herrialde "aurreratuegi" horiek, iraganen esklaboekin trafikatzeko zutenek, orain mugak ixten dituzte beraien herrialdeetako errekurtoak osten dituztelarik. Jada inork ez ditu hemendik ateratzen ziren trenak oroitzen? Miseria eta gosea nagusi ziren urte haietan zenbat jende hartu zuen babes deserrian, herria utzita. Mugak ixten eta txalupak hondoratzen dira, eta gorpuak urpean ehortzen dira; Europa zahar-berria ezertatik ere salbatzen ez duten mugak. Lampedusa. Beste tragedia bat, horrenbesteren artean, "gure" europar elkarte "loriatsu" honen "loraldi" ukiezinarekin ondorioz. Gutaz hitz egingo dute ez gaudenean.

KRONIKA > BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2013

'Abarkas' egindakoagaz gustura, Ugartetxea zapore gazi-gozaagaz



Markina-Xemeingo frontoian izan zen bigarren kanporaketa.

> AMAIA UGALDE

Pasa den zapatuan Markina-Xemeinen jokatu zuten Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013-ko bigarren kanporaketa.

Bertsolarien artean, Durangaldeko bi egon ziren: Beñat Ugartetxea eta Eneko Abasolo *Abarkas*. Azken hori Herriraren aldeko manifestazioa zela eta,

Arkaitz Estiballesek utzitako lekua betetzen. Eurekin batera kantatu zuten Agin Laburuk, Jone Uriak, Onintza Enbeitak eta Eneko Fernandezek.

Laburuk lortu zuen lehen postua. *Abarkas* laugarren geratu zen, eta Ugartetxea seigarren. Azken agurrean kantatu zutenek, bertsolari iurretarra gustura geratu zen eskainitako saioarekin. Ugartetxeak, ordea, umorea ipini gura izan zuen arren, eskaini gura zuen guztia ezin izan zuela eskaini onartu zuen.

Bertsorik onenak

Bakoitzaren ale on bi aukeratzekotan, bata elkarrekin kantatutako ofizioa da. Uso-tiroan zebiltzan -sanmi-

geletan edo -*Abarkas* hiru pe-luxe irabazita, eta Ugartetxea zotzik ezin apurtu. Momentu batean postuko ijitoari joko ziola kantatu zuen mallabiar-rrak, eta *Abarkas*-ek erantzun: "Jakin ondoko hori / gizontzat daukala / ta jitanari sartzen / badiozu bala / harek jarriko zaitu / pelutxe bezala". Ariketa horretan puntu gehien lortu zuen bertsolaria bera izan zen.

Beñat Ugartetxea bertsolariak tarteka ideia politikak utzi zituen. Aipagarria izan zen Onintza Enbeitagaz egindako ariketa. Jubilatutakoan, Enbeitak bere senar Ugartetxeagaz planak egin baino, ikastaro eta tailerretara joan nahiago zuela zen gaia. "Plan B bihurtu da / Beñat plana zana?" bota zuen mallabiarrek. Azken agurrean frontoia kantuan ipini zuen *Niri deritzat Galtzaundi* doinuagaz "Mila esker, mila esker, ea elkartzen garen laster".

hitz
liburudenda

artekalea, 14
durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

ROMEO Teatro Meridional

Urriaren 12an • 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEAK
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URRIAK 18 - 20:00etan DOAN
AIKO TALDEA
Dantzaldia Gukaren txosnan
Dantzaldi ibiltaria

URRIAK 19 13 euro
DEAFFEST
Musika kilometroak
Landako Gunean 16:00etan/Plateruenean 19:00etan

URRIAK 24 - 20:00etan 15 euro
KANTULAGUN
Kantulagunen txokoa

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

> ANTZERKIA

‘Guernica 1913’ obra lehenengoz antzeztuko du Banarte taldeak

Gernikako Lizeoko estreinaldiaren aurretik, Abadiñon eskainiko dute gaur



XX. mende hasieran Gernikan jazotako klase borrokari loturiko gertaera historikoa du obrak oinarri.

> ITSASO ESTEBAN

Urriaren 19ko Gernikako Lizeo Antzokiko estreinaldi nagusia- ren aurretik, *Guernica 1913* obra aurkezteko emanaldi berezia es- kainiko du Abadiñoko Banarte Antzerki Taldeak, 2007an taldea sortu zuten lekuan bertan, Erro- ta kultur etxean. Gaur, 20:30ean hasiko dute emanaldia.

Benetako gertakarietan oina- rrituriko obra da *Guernica 1913*: Gernikazarra Historia Taldeko Txato Etxanizek jasotako infor-

mazioan dago oinarriturik, eta haren aholkularitzagaz, Rafa Hercek idatzi du. Sardo Irisarri eibartarrak jardun du obra zu- zentzen, eta Jabier Obregonek landutakoa da eszenografia. Antzerkigintzari lotuta urteak daramatzate Irisarrik eta Obre- gonek: Durangoko Geroa antzer- ki taldeko kide izan ziren biak.

XX. mende hasieran Gerni- kan jazotako klase borrokari loturiko gertaera historikoa du antzezlanak oinarri: armagin-

tzako Esperanza y Unceta enpre- sako (gero Astra bezala ezagun egingo zena) langile eibartarrek 1913ko udazkenean Gernikan egin zuten greba, “amaiera epi- koa” izan zuen greba.

Lantokia Eibartik Gernikara aldatu dietenean, Busturialdera lan egitera eta bizitzera doazen Fermin Larragoicoa eta Justina Garate bikotea, eta Arrate euren alaba dira protagonistak.

Sasoi hartan “antagonikoak ziren bi mundu elkartu ziren”,

Gernikan. Banarte Antzerki Taldeak antzezlanaren aurkez- pen orrian dioenez, “bi klase sozialen elkartetik sortu zen gi- zarte berria”: oso tradiziozalea eta erlijiozalea zen nekazaritza mundua, eta industria iraultza- tik sortutako langile mugimen- du libertarioa batu ziren 1913 urte inguruan, Gernikan.

Esperanza y Uncetako langile eibartarrek 1913an Gernikan egindako grebari buruzko obra da

Ehun urte geroagoko, hau da, gaur egungo gizarteari buruzko gogoeta ere egiten du Banartek, *Guernica 1913* lanean: egungo “balio eta borroka molde alda- keta, eta altxatzea horrenbeste kosta zena zelan ari den jausten” erakutsi gura dute.

Antzerkiaren bitartez, Eus- kal Herriko historiako aldi ho- rren garrantzia gizarteratuko du Banartek. Izan ere, Esperan- za y Uncetako langileen borroka mugarri izan baitzen Gernika- ren eta Euskal Herriaren his- torian: lehenengo fabrikak eta lehenengo grebak ziren. Langi- leak estreinakoz hasi ziren auto- ritatea zalantzan ipintzen, baita elizaren indarra ere.

> ZINEMA

Film laburrak sortzeko gazteei zuzenduriko ikastaroa

Eskualdeko DBHko 12 eta 16ur- te arteko ikasleei zuzenduta, film laburrak egiteko ikastaroa antolatu du Durangaldeko Meri- naldearen Amankomunazgoko euskara zerbitzuak.

Gazteei zuzendutako film laburren lehiaketetan parte har- tzeko behar den ezaguera ema- tea da ikastaroaren helburua: gidoigintzari, interpretazioari eta bideogintzari buruzko oina- rrizko ezagutza emango diete.

Durangoko Behargintzan egingo dituzte ikastaroaren saioak: 10 guztira, eta ikastaroa- ren hasieran fidantzaren emanda- ko 20 euroak bueltatuko dizkiete %90eko bertaratze kopurua bete dutenei. Ikastaroan parte har- tzeko interesa duten gazteek, Behargintzaren Durangoko egoitzan eman dezakete izena, urriaren 24a baino lehen.

Gazteei zuzenduriko lehiaketetan parte hartzeko behar den ezagutza eskainiko dute saioetan

KRONIKA > BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOKO ERAKUSKETA

Durangaldea Dario de Regoyos inpresionistaren begietatik, Bilbon

Bilboko Arte Ederren Museoak Regoyos margolariari eskainitako erakusketan Durango eta inguruetako ikuspegi ederrak bildu dituzte

> MIKEL ONANDIA

Asturiarra izan arren, euskal pinturagintza modernoaren erreferente bat da Darío de Regoyos (Ribadesella, 1857-Bar- tzelona, 1913). Belgikan inpre- sionisten eta postinpresionis- ten eskutik ikasi, eta Europan eta Espainian zehar bidaiatu

Besteak beste, 1897 eta 1907 urteen artean, sarritan hurbildu zen Regoyos Durangora

ostean, Euskal Herrian aurkitu zuen paisaia begikoena. Herri ugaritan bizitakoa, hara eta hona, emaztea eta seme-ala- bak lagun, inpresionismoaren abenturari ekin zion.

Besteak beste, 1897 eta 1907 urteen artean, sarritan hurbil- du zen Durangaldera. 1905ean

Durangoko Artekalen bizi izan zen, bere emaztea Arrasateko psikiatrikoan zen bitartean. 1907an, ostera, orduko Olmedal kalean –egungo Ermodo kalea– bizi izan zen, eta estudio bat zeukan Iurretan. Hamarka lan egin zituen egonaldi haietan, hala nola, Urkiola, Arrazola, Elorrio zein Durangoko hain- bat ikuspegi, pintzelkada azkar eta koloretsuz, momentuko ar- gia eta eguratsaren une-une-ko inpresioa harrapatu guran.

Urkiola, Arrazola, Elorrio zein Durangoko ikuspegiak, pintzelkada azkar eta koloretsuz margotu zituen

Euskal pintore handienetako batek behar zuen erakusketaren aurrean gaude, dudarik barik

Horietako batzuk daude Bil- boko erakusketa handian. Alde batetik, Mugarra haitz mo- numentalaren ikuspegi ede- rra, Anbotoko mendizerraren panorama –bata Durangotik eta bestea Abadiñotik–, eta Du- rango hiribilduko paisaia bat, atzean Untzillatx eta Eskuba- ratz daudela. Bestetik, Andra Mariko elizpeko merkatuaren koadro bikaina –baita 1897an gauzatutako *Pais Basco* izene- ko grabatu bildumarako egin- dako elizpearen barne ikuspe- gia ere–, Kurutzia, Pinondo zein Iurretako eszena bi –bata herriarena, bestea ziur aski Arriaundi inguruko erreka iz- kina batena– ere presente dira. Regoyos bera Durangoko kale batean ume eta helduz ingura- tuta agertzen den argazki polit bat ere badago.

Faltan sentitzen dira hon- doan Santa Anako arkua eta Untzillatx mendia dauden Ar- tekalen egindako bi koadro eder –bata goizez, bestea arra- tsaldez–. Nolanahi ere, euskal pintore handienetako batek behar zuen erakusketaren au- rrean gaude dudarik barik, eta gurean gauzatutako lanek ba- dute merezitako lekua.



‘Anboto’, Darío de Regoyos. 1907. Olio mihise gainean. 55 x 65 zm. Pontevedra museoa.



Izan ezazu eztegu eskusiboa gure Pergolan!



Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Consulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendariak eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitaukate.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeke: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonarentzako
afaria eta gaua zozkatuko ditugu*
**Zein da Italiako Monza zirkuituan lasterketa bat
irabazi zuen pilotu abadiñarraren izena?**

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
Aurreko zozketako irabazlea: Juan Mari Berasaluze. Zorionak!

Kirola

Anbotoko maldetan amaituko da kilometro bertikalen zirkuitua bihar

VI. Anboto Kilometro Bertikala bihar jokatu da, 14:00etan, Arrazolan hasita. Iñigo Larizek eskura du aurtengo zirkuituaren garaipena gizonetan. Emakumeetan, Severine Duhalde da irabazteko faborito



Parte hartzaileek 1.092 metroko desnibelari aurre egingo diote 3,8 kilometroan.

> JOSEBA DERTEANO

Open Lafuma Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Zirkuituko hirugarren eta azken lasterketa Anbotoko maldetan lehiatuko dute bihar 212 parte hartzailek. Biharko saioaren faltan, Iñigo Lariz elgoibartarra (Mugarra Triatloi Eskolako arduraduna) da sailkapeneko liderra gizonetan. Emakumeetan biharko proba irabazteko faborito nagusia Ipar Euskal Herriko Severine Duhalde da. Asuntze mendi taldeak antolatzen duen proban Madril, Segovia, Burgos eta Frantziako hainbat korrikalarik ere parte hartuko dute. Atxondoko udala ekimeneko laguntzailea da.

“

Guztira 212 bat parte hartzaile egongo dira; Madril, Katalunia eta Frantziakoak dira horietako batzuk

Lehenengo korrikalariak zapatuan, 14:00etan, irtengo dira Arrazolako (Atxondo) eliza paretik. Osatu beharreko bidea aurreko sei aldietako bera da. 3,8 kilometroan 1.092 metroko desnibela gainditu beharko

dute. Beste era batera esanda, Arrazola eta Anboto biderik laburrenetik lotuko dituzte parte hartzaileek. Eliza paretik irten eta zementuzko bidean zehar Atzekoa auzunetik joango dira. Han zementuzko bidetik irten eta Zabaletarantz zuzenduko dira korrikalariak. Anbotoren magalera heltzen direnean hasiko da kilometro bertikaleko tarterik gogorrena.

Gizonetan Lariz tontorrera beste inor baino lehen heltzeko faboritoen artean dago, baina ez da irabazteko hautagai bakarra. Orain arteko proba biak (Azpeitia eta Uharte Arakil-Beriaingoa) irabazi dituen Larizek, esaterako, Oier Ariznabarreta

durangarra eta Mikel Beunza izango ditu aurkarien artean. Biharko proba irabazi barik ere sailkapen orokorraren jabe egiteko aukera handiak ditu elgoibartarrak, baina zirkuituko proba guztiak irabazten saiatuko da.

Emakumeetan dena airean Emakumeetan, orain sailkapeneko aurreneko hiru tokietan dauden hiru korrikalariak (Aitziber Ibarbia, Montserrat Vazquez eta Jone Urkizu) ez dute Anboto Kilometro Bertikalean parte hartuko. Beraz, Atxondoko proba etorriko diren artean Severine Duhalde da lasterketa bera eta sailkapen nagusia irabazteko faborito nagusia. Hala ere, lehia irekita dago.

Faboritoen beste helburuetako bat igoerako marka berria ezartzea izango da. Orain gizonetan zein emakumeetan dauden errekorak 2011n ezarri zituzten Marco de Gasperi (37.14) eta Oihana Kortazarrek (47.10). Errekor berria lortzen duenak 500 euro jasoko ditu; gizon eta emakumeetan, bietan hobetzen bada, saria erdibanatu egingo dute.

DATUAK

- **Hasiera:** Zapatuan, 14:00etatik aurrera, Arrazolan (Atxondo).
- **Igoera:** 3,8 kilometroan 1.092 metroko desnibela.
- **Ibilbidea:** Elexalde, Atzekoa, Zabaleta, Mahala eta Anboto.
- **Errekorra gizonetan:** 1- Marco de Gasperi: 37.14.
- **Errekorra emakumeetan:** 1- Oihana Kortazar: 47.10.

Bihar ez duzu lehenengo geratu beharrik zirkuitua irabazteko. Indarrak dosifikatzen saiatuko zara?

Egia da zirkuitua irabaztea nahiko eskura daukadala. Lehenengo ez geratuta ere aukerak ditut, baina biharko proba irabaztea dut helburu. Euskal Herrian egiten den kilometro bertikalik politena dela uste dut, eta oraindik, podiumik ere ez dut lortu Anboton. Beraz, irabaztera irtengo naiz. Gero, jakina, ikusi egin beharko da indarrek nola erantzuten duten eta arerioak ere zer sasoi puntutan datozen.



Iñigo Lariz.

“Irabaztea dut helburu; podiumik ere sekula ez dut lortu Anboton”

Iñigo Lariz elgoibartarrak zirkuituko orain arteko proba biak irabazi ditu. Anboton ere bera da irabazteko faborito. Zirkuitua irabaztea eskura duen arren, ez da konformatzen. Lasterketa irabazi gura du.

Zer sasoi puntuan heldu zara VI. Anboto Kilometro Bertikalera?

Sasoi onean heldu naizela uste dut. Orain aste bi Canfranc-eko

(Huesca) kilometro bertikala irabazi nuen. Anbotokoaren antzerako ezaugarriak ditu, eta prestaketa moduan parte hartu nuen. Joan zen asteburuan, aldiz, Araian jokatu zen kilometro bertikalean parte hartu nuen. Euskal Herriko txapelketa zegoen jokoan. Laugarren geratu nintzen Aritz Egea, Oier Ariznabarreta eta Ionut Zinkaren atzetik. Ondo aritu nintzen, baina lehen hirurak oso indartsu zeuden.

> ZESTA PUNTA

San Fausto zesta txapelketako finalerdiak etzi

San Fausto zesta-punta txapelketako finalerdiak jokatu dituzte domekan, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Lehenengo partiduan Berriatuko Alberdik eta Ubillak Zumaiako Lazkano eta Uranga izango dituzte kontrario. Bigarren finalerdian Markinako Arbe-Zabala eta Gasteizko Landa-Suso bikoteak lehiatuko dira.

Durangoko zesta-punta taldeagaz jokatu duten Azkaratek eta Abadek zorte txarra izan dute txapelketan. Final-laurdenera, Zumaiaren aurka Azkarate lesionatu egin zen, eta kanpoan geratu ziren.

> SASKIBALOA

Tabirako Baquék lehen garaipena gura du Ordizian

Gizonen talde nagusiak porrot birekin ekin dio denboraldiari. Horietako bat, joan zen asteburukoa izan zen, mailako talderik indartsuenetako bat den Bide Bide Donostiaren kontrakoa: 56-86. Gaur, Ordizian, Biok Zerbitsuak taldearen kontra duten partidua ere ez da samurra izango. Ordiziarrek orain arteko partidua biak irabazi dituzte.

Emakumeen talde nagusiak, aldiz, garaipena lortu zuen estreinakoa: 46-41 Otxarkoagaren aurka. Zapatuan berriro etxean jokatu dute Portugaleteren aurka.

> ARETO FUTBOLA

Derbian neurtuko dira Sasikoa B eta Sapuberri

Zapatuan, 17:30ean, Sasikoa Bk eta Sapuberri derbia jokatu dute areto-futboleko Maila gorenean. Sasikoak, orain arte, partidua biak galdu ditu. Sapuberri, aldiz, porrot batekin ekin zion ligari, baina joan zen asteburuan, etxean, hiru puntuak batu zituzten Erromotarrak taldeari irabazita (10-2).

Berrizko Presion Break, ostera, lider dago orain arteko biak irabazita. Asteburu honetan Muskizen aurka jokatu behar zuten, baina partidua hori azaroaren 16ra atzeratu dute.

> AUTO LASTERKETA

Europako F3 Txapelketan, Monza zirkuituko lasterketa irabazi du Urienek

Igor Urienek bere estreinako urtean ikastea badu ere helburu, podiumeko koskarik gorenera igo da Italian



Igor Urien txapela buruan, eta xanpaina eta garaikurra eskuartean dituela.

> **JOSEBA DERTEANO**

Igor Urien abadiñarrak Europako F3 Txapelketako lehenengo garaipena lortu du (F308 Kopak kategorian) Italiako Monza zirkuituan. Estreinako urtean ikastea du helburu, mailan asentatzea, eta denboraldi osoan jasotako hamaika ikasgaien artean pasa den asteburukoa izan da gustagarriena: garaipenarena.

Monzan Europako F3 Txapelketako azken aurreko lasterketa lehiatu zuten. Beti lez, zapatuan eta domekan lasterketa bana izan ziren. Zapatuko lasterketa irabazi zuen Urienek. Sailkapen saioan lan ona egin ondoren, bigarren postutik ekin zion. Lehenengo itzulietan Cameron Twynham pilotuaren monoplaizak zibarena egin zuen, eta gertaera hori lehen postuan ipintzeko baliatu zuen Urienek. Handik aurrera, maisutasunez kudeatu zuen egoera, eta garaipena eman zion Emilio de Villota Racing taldeari. Abadiñarra gustura zegoen lasterketaren amaieran: "Oso pozik

nago garaipenarengatik. Aurtengo helburua ikastea da, baina podiumaren gorenera igotzeak hilabeteetako lana bide onetik doala erakusten du. Taldeari eta babesle guztiei eskerrak eman gura dizkiet".

> **Domekan ezin amaitu**

Domekako lasterketa hasi zenean, zirimiria ari zuen. Euria gehiagora joan zitekeela sumatuta, Urien eta beste pilotu batzuek pneumatikoak aldatu zituzten. Baina ez zuen euri gehiago egin, eta denbora baliotsua galdu zuten *box*-etara sartutako pilotuek. Gainera, 16. itzulian Urienek ukitu txiki bat izan zuen beste monoplaizak baten, eta lasterketa utzi behar izan zuen abadiñarrak.

Europako F3 Txapelketa amaitzeko lasterketa bakarra falta da: azaroaren 9tik 10erako asteburuan Kataluniako Barcelona-Catalunya zirkuituan jokatuko dena. Lasterketa horren faltan, Urien laugarren dago F308 kategoriako sailkapen orokorrean.

> **ADITUAREN TXOKOA****Unai Zamalloa**

Saskibaloia

Aukera berriak

Atzo Bizkaiko Saskibaloia Federazioan egon ginen batuta Bizkaiko hainbat ikastetxe. Gure herritik, Jesuitak, Ners, San Antonio eta Kurutzia gako ordezkariok parte hartu genuen. Gaia: hurrengo denboralditik aurrera 7-9 urte bitarteko guztiak 3x3 jokatzen ibiliko dira. Iaz jokalaria gutxiago taldeentzat aukera bikaina izan zen, eta aurtur oraindik aukera hori ez da denontzat izango, baina hurrengo denboralditik aurrera bai.

Egia esan, batzarraren hasieran, alde onak eta positiboak ikusi beharrean, arazo eta gatazken gainean jardun genuen.

Guri, batez ere, antolakuntza aldetik zail egingo zaigu. Partiduen egutegietan entrenatzaile gehiago mugitu beharko dira, talde txiki (4-7 jokalariz osatutakoak) bakoitza ordu eta leku batera mugituko direlako. Era berean, jardunaldiaren antolaketa dagokigunean, esfortzu gehigarri bat ekarriko du antolaketak berak.

Alde positiboak, oster, asko dira. Izan ere, gehiagok izango dute saskibaloian aritzeko aukera. Taldea osatzeko minimoa 8koa izan beharrean, erdia izango da, eta adin honetan neska-mutilek osatu ditzakete taldeak. Gainera, jokalaria guztiak izango dira taldeko parte hartzaile nagusiak. Horrela, saskibaloian emandako lehen pausok guztiek gozatuko dituzte, emaitzek eta bestelakoek garrantzia galduta.

Ia horrek gure kirola gehiago hurbiltzen duen guztiongan!

Gora San Fausto! Ondo pasa guztiok!

> **PILOTA**

Otadui eta Elordi Cafés Baquéko finalerdiak kanpora

Gorka Otadui 16-22 galdu zuen Ibarrondoren aurka, eta Aitor Elordik 12-22 Etxebarraren kontra

> **J.D.**

Urriaren 18an Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan jokatuko diren Cafés Baqué esku-pilota txapelketako finalerdiak ez da Durangaldeko ordezkariak egongo. Atzo Gorka Otadui berriztarrak eta Aitor Elordi mallabiarrak (biak dabilta Iurretako Olaburu pilota taldean) galdu egin zituzten gazteen mailako finalerdiak.

Otadui bere mailarik onena eskaini zuen bera baino urtebete nagusiagoa den Ibarrondo faboritoaren aurka. Partidu erdira arte aurretik joan zen. Bigarren zatian, baina, fisikoki behera egin, eta galdu egin zuen.

Elordi 8-2 aurreratu zen oso ondo jokatuta. Baina Etxebarrak eskuinean pilota astintzen hasi zenean partiduari buelta eman, eta erraz irabazi zuen.



Gorka Otadui ezkerrean, finalerdiaren aurkezpenaren ondoren.

katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuak menu bereziak
Delikatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

HEKi IURRETA

HEKi
HERRI KIROL KLUBA

- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

> ERRUGBIA

Durango Ilarduyak denboraldi berriari ekingo dio zapatuan, Zarautzen kontra

Iaz mailari ozta-ozta eutsi ostean, aurten aurrerapauso bat ematea du helburu gizonen talde nagusiak



Bihar, Arripausuetan hasiko du denboraldia gizonen talde nagusiak. Kepa Aginako.

> JOSEBA DERTEANO

Durango Ilarduya gizonen talde nagusiak Ohorezko B mailari ekingo dio bihar Zarautzen kontra, 16:30ean, Arripausuetan. Iaz mailari ozta-ozta eutsi ostean, aurten goranzko pauso bat ematea dute helburu.

Oro har, iazko taldeari eutsi diote aurten, baina jokalariai ga-

rrantzitsu batzuk galdu dituzte, batez ere, aurrealdean. Arrazoi bategatik edo beste bategatik, Maxi Mendez, Berdaitz Iturralde eta Iker Hercek taldea utzi dute. Hiru jokalariek aurrealdeko postuetan jokatzeko dute, eta taldean pisu handia izan duten jokalariai dira. Horien hutsunea betetzeko, jokalariai batzuen

posizioak berrezarri egin behar izan dituela adierazi du Peio Urkidi entrenatzaileak. Jokalarien esperientzia eta dohaiak hartu ditu oinarri erabaki horiek hartzerako orduan. Liga hasierarako duten beste hutsune bat Enrique Gasconena da. Iaz lesionatu egin zen, eta oraindik ez dago jokatzeko moduan: “Gabon os-

terako taldeari batzea itxaroten dugu”, azaldu du Urkidik.

Iaz taldeari kosta egin zitzaion partiduak aurrera ateratzea, batez ere, jokalariai gazte berri asko zituztelako. Aurten, jokalariai horiek urtebete gehiagoko esperientzia dute, eta jokalariai batzuek taldea utzi behar izan duten arren, Urkidik argi du aurten “aurrerapauso bat” eman behar dutela: “Iazko denboraldia gogorra izan zen. Jokalariak azken unera arte erakutsi zuten konpromisoa, eta hori goraipatzekoa da. Aurten denboraldi berri bat dugu aurretik. Oviedo eta Coruña kenduta, gainerako talde guztiak euskaldunak dira. Maila handiagoko Euskal Liga baten antzerakoa izango da aurtengoa. Aurten, atzeko postuak ahaztu, eta sailkapenaren erdian egoteko moduko taldea dugula uste dut”.

Emakumeak errugbi 7an

Emakumeen taldea, aldiz, errugbi zazpiko txapelketa jokatzeko ari da azken hilabete eta erdian. Gaur egun, bosgarren daude sailkapenean. Txapelketa hori amaitu ondoren, urriaren amaieran hasiko dute 15 jokalariko errugbi txapelketa Euskal Ligan.

> TRIATLOIA

Hirugarren bider jarraian Espainiako txapeldun Frades

Calellan (Katalunia) distantzia luzeko triatloien Espainiako txapelketa irabazi du Gurutze Fradesek

> J.D.

2011n Orihuelan (Alacant), 2012an Calellan (Katalunia), eta 2013an berriro Calellan. Bere ibilbidean Gurutze Fradesek hiru bider lehiatu du distantzia luzeko triatloien txapelketa, eta hiruretan irabazi du. Zapatuan laugarren amaitu zuen Bartzelona-Marisme Challenge proban, baina bera izan zen estatuko aurreneko triatloilaria:

9.28.51. Fradesek ia ordu erdian jaitsi zuen iazko bere denbora. Bigarren tokian Helena Herrero sailkatu zen (9.37.25), eta hirugarren Arrate Mintegi (10.16.36). Gizonetan Richard Calle izan zen irabazlea.

Beraz, datorren denboraldira arte Gurutze Frades distantzia ertaineko zein luzeko triatloien Espainiako txapelduna izango da.



> ZIKLO KROSA

Nazioartean lehenengoz jaso ditu besoak Murgoitio

Joan zen asteburuan Eslovakian jokaturako ziklo-kros proba irabazi zuen abadiñarrak



> J.D.

Ziklo-kros denboraldia indartsu hasi du Egoitz Murgoitio abadiñarrak (Hirumet-Orbea taldea). Orain arte nazioarteko hiru lasterketa lehiatu, eta aurreneko bietan garaipena gertu izan ondoren (hirugarren Suitsan, eta laugarren Txekiar Errepublikan), joan zen asteburuan Eslovakiako ziklo-kros lasterketa irabazi zuen. Euskal Herrian eta estatu mailan nazioarteko lasterketa bat baino

gehiago irabazi ditu, baina Eslovakiako nazioartean irabazi duen lehenengo aldia: “Denboraldia hasi besterik ez da egin, baina emaitza inportantea da. Eslovakian Belgikako talde eta txirrindulari indartsuek parte hartu dute, eta horien aurretik geratzeak beste balio bat du”, adierazi du.

Asteburu honetan Frantzian (Saint Etienne hirian) lehiatuko du, eta hurrengoan, Munduko Kopa hasiko du Herbehereetan.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako-Derio

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelai.

MAILA GORENA

Abadiño-Indautxu

· Zapatuan, 17:00etan, Astolan.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi-Peña

· Zapatuan, 18:30ean, Arripausuetan.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorriko B-Ermuko Anaitasuna

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

Zaldia B-Larramendi ikastola

· Zapatuan, 15:45ean, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio-Orduña

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorriko Buskantza-Laskorain

· Domekan, 12:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

Mallabia-Goierri

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian.

MAILA GORENA

Kurutziaga Ikastola-Mamarigako

· Zapatuan, 19:40an, Landakon.

Elorriko Buskantza B-Berio Santutxu

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

Sasikoa B-Sapuberri

· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA

Dantzari-Txoko

· Zapatuan, 17:30ean, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque-Portugalete

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baque-Agustinos

· Barikuan, 20:30ean, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA

Anbotopeko-Jesuitinas

· Barikuan, 19:50ean, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldia-Guerto

· Barikuan, 20:00etan, Zaldibarren.

> PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau T'erdian:

· Aspuru-Errandonea

Binaka:

· Elezkano I-Kastillo/Dorransoro-Perez
Urriaren 17an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

Aisialdia

> AUZORIK AUZO



Delfin Zubizarreta.

Herritarren begi arkeologikoek Zaldibarko dorretxea aztertuko dute

Europako Ondare Jardunaldien barruan kokatuta, Belen Bengoetxea EHUKo arkeologoak Zaldibarko dorretxearen garapen historikoa arkeologiaren bidez erakutsiko die herritarrei

> JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko dorretxea Durangaldeko leinurik garrantzitsuenetakoa den bitoki izan zen mende askoan. Lur zati zabaletan banatutako baserriar asko dorretxearen zerbitzura bizi izan ziren luzaroan. Gaur egun, orduko handitasunetik urrun dago dorretxea; horma zatiak, egurrezko habeak eta elementu artistiko batzuk geratzen dira bandokideen sasoian zuen botere handiaren erakusgarri. Orain, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, dorretxeari hautsak astindu dizkiote auzolanean, eta asteburu honetan herritarrek dorretxearen erradiografia historikoa egingo dute arkeologiaren bidez.

Auzolanagaz dorretxearen egitura eta inguruko belardiak garbitu, eta doto-re utzi dituzte. Ekimeneko izena eman duten herritarrek Belen Bengoetxea EHUKo arkeologoa izango dute gidari. Zapaturako, goiz zein arratsalde, eta

domoka goizerako prestatu dituzte Zaldibarko dorretxerako bisitak. Bertara joan aurretik, garai bateko futbol zelaiko gela batean batuko dira. Lehenengo, dorretxea testuinguru historikoan kokatu, eta bere ezagaurriak azalduko ditu Bengoetxeak. Ondoren, arkeologiaren bidez dorretxea interpretatzeko gakoak emango ditu, eta Durangaldeko beste dorretxe batzuetan egindako arkeologia azterketak azalduko ditu, Durangoko Lariz dorrekoak, besteak beste.

Informazio hori guztia jaso ondoren, alderdi praktikoari ekingo diote. Bengoetxearen gidaritzapean, herritarren begi arkeologikoak izango dira apurka dorretxearen egitura eta elementu arkitektoniko zein artistikoak berriro bistaratuko dituztenak: “Eraikin noble bat izan zela erakusten duten ezaugarriak mantentzen ditu oraindik. Harri landuagaz egindako dorretxea da. Oin planta ondo ikusten da oraindik, eta lehen so-

lairua ere nahiko ondo kontserbatuta dago. Goragoko solairuaren zati bat ere ikusi daiteke. Estilodun elementuak ageri dira, arkudun ate zein leihoak, eta sareta estiloan egindako beste batzuk. Bestalde, denboraren joanean hainbat fase izan dituela ikusi daiteke. Egitura batzuk eraiki ziren sasoikoak dira, baina elementu asko beste hainbat fasen ondorio direla ikusi daiteke”, azaldu du Belen Bengoetxeak. Ekimenean parte hartuko duten arkeologo hasiberriek elementu bakoitza denboran kokatzeko, eta batak besteagaz osatzen duten armonia bereizteko ariketak egingo dituzte.

Bengoetxearen ustez, garrantzitsuak dira horrelako ekimenak: “Alde bate-tik, herritarrek dorretxea eta ingurua garbitzeko egin duten ahalegin handia dago. Bestetik, ondarea bera baloratze-ko ere ekimen interesgarria da. Urteen joan-etorrian eraldatutako ondare baten adibide garbia da”.

ZER IKUSI



Dorretxearen ikuspegi bat. D. Zubizarreta.



Auzolanean dorretxea garbitzen. D. Zubizarreta.



Dorretxearen ingurua garbi-garbi. D. Zubizarreta.

laguntzaileak



EDERTASUN GIDA



Osasun Etxea

Ez da denda berria Osasun Etxea, ezta?

Osasun Etxea belar-denda duela 35 urte sortu zuen Emilia Arrietak, belarren medikuntza naturalaren mundua hain ezaguna ez zen sasoi batean. Durangoko lehenengo belar-denda izan zen.

Zer eskaintzen duzue?

Gaur egun ere funtzionatzen jarraitzen dugu, tartean Emiliaren alaba dagoela. Bezeroari bere osasun arazoan laguntzea helburu nagusi duen komertzioa da. Bere funtzioa ez da belar edo xarabe baten salmenta soil, doako aholkularitza eskaintzen dugu. Horretarako, talde prestua eta ikasia da gurea.

Gainera, nobedade berezi bat ere badaukazue eskaintzeko...

Nutrizio arloko coaching-ean aholkulari onetsuenetakoa dena daukagu. Coaching metodo honegaz, pertsonak elikadurari lotuta dauzkaten helmugak lortzen laguntzen dugu. Bezeroa bere helburuak zehazteko protagonista sentitzea da asmoa, eta bide horretan laguntzen du Coach-ak. Bezeroa bere erabakien partaide izatea eta horrela pisu osasuntsu bat eskuratzea gura da, denboran mantenduz. Osasun Etxean itxaroten zaituztegu Ana, Ainhoa eta Nereak.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



HERBORISTERIA eta DIETETIKA



Profesional onenak zure zerbitzura!

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Arrosa. Etxebizitza salgai Arrosan (baxe-nafarroa). Bi logela, bainera, komuna, sukaldea, berogailu elektrikoak, leiho dobleak, egongela beheko suarekin. Mila metro karratu lur etxe inguruan. Prezioa: 100.000 euro. Harremanetarako: xabilan@yahoo.es tel.: 618-76 95 41

Abondo. Familia bakarrek txalata salgai. 4.000 m2-ko lursaila, 4 logela, 3 bainu, horma-armairuak. 615-70 12 25.

Durango. 58 m2. Eguzkitsua. Kokapen ezin hobea. Harrera gela, sukaldea, komuna, logela, egongela ederra, balkoi eta garbiera. Jantzia. Interesaturik bazaude, deitu. Tel.: 658-70 17 48 (Olatz).

Elorrio. Atiko polita salgai Elorrian. 50 m2. 656-74 67 13 (20:00etatik 22:00etara). Posta: loitzate@hotmail.com.

Elorrio. Elorrio erdi-erdian estreinatu gabeko etxea salgai. 190.000€. Tel.: 634-45 72 01

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismora, toki eguzkitua eta ederra, 20.000 metro lur. 655-70 26 47.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100m2 azalera erakituak

Otxandio. Apartamentua salgai. Altzariz jantzia. Trastelokuarekin eta igogailuarekin. Tel.: 675-71 72 83.

Otxandio. 90 metro erabilgarri dituen etxebizitza salgai Otxandion. 65572 6760 (aratsaldeko zapietatik aurrera).

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisu alokagai Muntzaratzen. 85m2, 3 logela eta 2 komun. 662-55 40 77.

Berriz. Pisu alokagai. Hiru gela, bi komun, egongela eta sukaldea. Erdi-erdian. Autobus eta tren geltokitik 2 minutura. Oso eguzkitsua. Tel.: 656-78 02 15.

